

# LURPEKO URAREN BILLA KOSTA URDIÑA

(Côte d'Azur)

## Phisikalari baten iritziak

Lurpean dijon urari igarri al dizaiokogu? Gai oni buruz amaika eta amaika eztabaida, ta ez nolanaikoa, entzunak ditugu. Iritzi batekoak eta beste-koak gogor eusten bai diote beren alderdieri.

Gure artean badegu «zaori» deitzen dioten orrelako bat. Eizagirre jauna. Tolosarra bera, ta askok diotenez, trebeenetako bat lanbide auetan. Bera maisu nuala neronek ere egiña dut saiotxo bat ur billaketan...

Jakintzak, phisika-jakintzak alegia, esplikaz lezaketen fenomeno bat ote degu esku artean?

Ez omen zan, gaur arte, aztertako seriotso bat egin ur-igartzeari buruz; esan nai nuke alegia, behe ere ez duela gaur arte phisikalari trebe batek gaitzak artu ta jakintza orren mendeko fenomeno bezela ta bere legez azaldu lezakena formulaz finkatu. Eta ara, nola, oraindik-orain, Yves Rokard deritzan prantzis phisikalari ospetsuak, gai oni buruz, argitaratu digun liburu sakon bat («Le signal sourcier», argitaratzailea DUNOT).

Zer dio Yves Rokard jaunak liburu orretan?

Ona itz gutxitan bere lanaren sustraia:

Eta aurrenik ona nola azal-tzen digun lurpeko ur-igartze ori.

Bi esku artean daramaki-gun ziri bateri, besoko gin-rran ustekabeako astintzearen bidez, norbere borondateak

agindu ez duen mogimendua eragiten dio. Ur-igartzailea ez dago geldirik, lur gainean dijoa pauso ez geldiegi ta ez lasterregiz. Mugimendu ori nabaritzeak adierazi nai du oin pean ura dagoela.

Ziri ori nolokoa ta zeezkoa izateak zer ikusirik ba aldu? Rokard jaunak ezet dio, ontan «zaori» geienak besterik uste badute ere.

Ori orrela dalarik, gure fenomeno onek bi alderdi dauka. Bata zein indar dala merio eragiten dio giza-soñari, berak agindu gabeko mogimendua agertzeko? Bigarren berriz, bein indar orren iturria ondo ezagutzen badegu ere, zer eratan edo obeto esan, nola jaso lezake indar orrek bialtzen dion sinalea?

Lenengo galdera phisikalariari dagokio. Bigarrena fisiologoa-ri.

Len aitaturako Yves Rokard jaunak phisika aldetik erabat argitu gaitu. Ona labur labur jakintsu onek diona:

Lur xularmetsu (xulotzoz jositako dagan lurra esan nai du) zear ura dijoanean, elektro-zinetika potentziala sortzen da eta orrek jalo arazten duan magnetismua da gure esku artean daramagun ziriaren mugimenduen kausa.

Berorrek digunez berak baño lenego, 1850 g. urtean beste phisikalari batek aitatu omen zuen fenomeno au. Kuinke zuen izena.

Nolanai ere Rokard izan da bear diran esperientzi, neurke-ta ta kalkulauk egin dituen.

Esan dezagun beraz argio. Lur xularmetsua bear bearrez-koa da. Esan nai nuke ez dala naikoa lur-pean ura egotea, barrezkoa dirala bai ura dijoana (ur geldiak ez du sinalerik ematen) eta bai ere lur xularmetsu zear joatea. Adibidez lur azaleko urak, nai dijoana izan, ibai-urak, ez du behe ere sortuko si-nalea ori.

Gorago aitatu ditugun bi gal-dera aietatik lenengoari erant-zupen jatorria eman dio Rokard phisikalariak. Bañan bigarren-ari buruz ez da oraindik argita-sunik nabaritu.

Giza zentzumenak bost zire-lakoan geunden. Ara seigarren-aren aztarna egiazkoa azaldu. Nola nai ere alderdi au oso illu-na agertzen zaigu oraindik. Gal-dera azkotxori erantzun bearko diegu gure adimenak, gisa zen-tzu berri au erabat ontzat artu arte. Ikusmenaren mekanika ezaguna zaigu, era berean beste lau zentzuen, baña «magnetis-mumena»k nun dauka bere orga-nu berezia?... nola da bere mekanika?

Bukatzeke esan dezagun gau-za bat agertzen zaigula guri ta garbi, alegia oraindik illuntasu-nean egon arren, «zaori»en lan-a ezin dezakegula sorginkeriz-tzat jo; alderantziz, gizonak benetan daukan doai batean fin-katua dago.

Zumalabe

Korta urdiñak, berakin ditu esaten diran edertasun guztiak.

Ori da turistak bertara erama-teko duan indar berezia, ta ez propaganda utsa. Propaganda utsari jaramon egingo bageno, urtean sei aldiz bakarrik egiten omen du euria, ta ori orrela ba-litz, gu bertan ibilli geran zor-tzi egunetan egin ditu aurtengo seirak eta datorren urteko bi. Ez baidu egun oso bat aterrik egin.

Paris aldetik itzultzen diran era guzietako artistak sortzen duten giroak eta bertako ingu-ru-minguruen ederrak, ta batez ere itxas bazter artako epela di-ra turismo orren mirakulua egin dutenak.

Provenza-ko etxeak, arkitek-turaz, ez dira Euskalerrikoak bezin txukunak, mendi-malde-tan pillatuta arkitzen dira alka-ri estuturik, kale mearrez zear-katurik. Gazteania-ko bezela-koak dira euren lur kolore ta guzti. Orregaitik ezta txaletik bertako jatorritzko etxeen jar-raikiz egiñik, gure erriko itxas-ertzean bezela, batez ere Ondar-rabin.

Ala ere, konstruzioan, gauza politak ikusten dira, baña ana-ria osoa nabarida. Orraitioak, Cannes-en, ondartzat aurrekal-dean dauden etxe berriak, ezin oheko era berrizko estiloz egi-nak daude.

Arrantzaleak ez dira gure itxas-bazterrekoak bezela. Ezta agiri jatorrasunik, nai zta txapel-kazoz dotore jantzi urdiñez edo zuriz. Operetako arrantza-leak eta marinelak dirala ema-

ten dute. Bertako itxasoa be-zin maxkalak dira.

Jende kosmopolita ezta bate-re atsegiña. Eme itxurazko gi-zakume geiegi ikusten da. Snop berriz maizegi dago. Askok, bo-hemia dute moda berritaz eta soñeko berriari zaar itxura emanda dabilta, zimurrez eta arabakiñez beterik, gure soroe-tako txorimaluak bezela. Twyst ritmoan dantzaten dira eta na-gikeriz ibilli.

Amerikanoak ere beren azpa-pena egin bear zuten, eta Mon-te Carlo-ko kasinoan jarri dute erakusketta bat: «L'Art Améri-cain Contemporain», pintura as-traktoa agertuaz. Ta, ura ikusi ondoren, pentsatzen gaude Amerika berriz kolonizatu ba-rrean gaudela, baña artea erama-naz. Vallauris-ko astraktoak besterik ziran. Geien bat ere, amerikarrak, koloreen armonia falta dute. Aintze hai ikusi de-gula tarta sardin erriekin naas-turik, funtsik gabeko estetika batean.

Itxas bazterra ederra bada ere, mendien deiak eraman gaitu Alpes aldera. Baña inoiz ez gera aitzuko Nice inguruko paisaje zoraragarriekin. Ta orain emen gabilta mendi tartean, egualdi txarrekin, mendi gallu-rrak argi noiz ikusiko begira. Jendea askoz ere sanoagoa ar-kitzen degu ta gaitzerdi. Berriz ere esan geneza Lizardi gure olerkari aundiak bezela: «Mai-te ditut gaillurrak argiak ez beste. Ai! egaztia banintz gaiñik-gaiñ nenbilke».

J. San Martin

## OARRA

Eskuartearen daukagu euskaldun jendeari zabaltzeko Joa-nes XXIII garrenaren Santutasuna zenaren «Pacem in terris» Enziklika.

Ale bakoitzaren sal-neurria 7 peseta da.

Jabe egin nai dezatenak, zuzenbide ontara eska bezate:

«ZERUKO ARGIA»

Oquendo, 22

San Sebastián.

Etxeko-andre: irau arazi zure arropoi onko jabo onen:

## JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'zazu

ATOMIZADO LAGARTO, — jaboia erabillit beti

Esuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dez ueroi

JABON LAGARTO, garbiketarako jabo bakarral

Etxeko-andrearentzat nerkamerik egokiena,

## ¡¡JABON LAGARTO!!

«ZERUKO ARGIA» - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN  
FRANQUEO CONCERTADO N.º 37 - 21

## DIZDIRAK

## SARTU TA ENTZUN

Carlos Santamaria'k

«Ume nintzan goizean gauzak argi ziran Begiotan illuna gero azaldu zan».

Gandiaga aitak Txillardegí jaunari eskeñitako bere poeman («gizon begi goritu, gizon jagi-zale, gizon griñen-katigu, gizon miñez-bete»... ta abar) bertso ori bezain sakon-ederrak amaika arkituko dituzte noski.

Ume giñan goizea! Biziazen arratsaldean goiz zorigarri orren oroiaia berriz etortzen zaigu etengabe, deitze miragarri beze-la. Ura argi-garbitasuna! Ura sinismen-itxaropena! Olerkaria aurtzaro - oroi - iturburu onera itzultzen da beti, nai zuzteka-bean.

«Ementxe dago arkaitza Ume nintzanean soin gabeko poema bat usmatu neban, ezina, arkaitz zurtz onen gainean».

Gandiaga Aita gaurko olerkari euskaldunen artean aundienetako bat degu, nere ustez. Olerkariak oso bearrezko zaizkigu guziori, bai, sendagille ta injinadorek baño geiago.

«Lojkarik gabe bizi gintezeke agian. Poesiarik gabe, ordea, ezin bizi gera gizonok». Ala

esaten omen zuen Gandhi aundiak.

Benetan, olerkirik gabe bizi-tzea ezin - eramanezkoa izango litzaiguke. Asnasa egitea be-zain naitanaiezko degu olerka-riaren maitantza, poesiaren laz-tana, artea. Eta akullu antzo poetikaz zirikatzeten gaitu noizean bein.

Ontaz esan nai det poesia es-tala bakarrik olerkarien lana izaten. Gure lana, bakoitzaren lana, dala.

Gauza guzitan dago olerkia —eta soñua ere bai— gu oar-tzen ezgeralarik ere. Egi-egiz olerkariak ezte bere olerkia as-matu bear, arkitu besterik ez du egin bear.

Egin gaitun Arrek biziaren zama astuna arin dezaigun eto-rrriaren iturria gure barnean ja-rrri du.

Egiatzko olerkia ixillekoa da. Ez datza berbuan, ez itz-urgol-dean, baizik gauza guzien kom-unioan.

Orra olerkari, Done Frantzis-ko'n seme bikain ori. Orrek egingo du miraria, olerki mutu orri itz egin araziko dio, danok gure biotzetan entzuten ikasi dezagun.

Bañan nor bere buruarentza-ko olerkari onena nor bera iza-ten da. Ortarako gure baitan sartzea txit komeni zaigu.

Sartu ta entzun, bearra degu oso.

**ENTZUN  
EUSKAL  
IRRATIAK:**

**Donostia'ko  
Erri-Irratia  
Loiola, Arrate,  
Segura ta  
Tolosa**